

Kaixo lagun!

Zer moduz?

urtea bukatzen ari da eta ate joka dira Eguberriak.

Ba al dakizu Gabon gaua, Eguberri egunaren bezperakoa, dela urteko gaurik luzeena?

Esaten dutenez:

“Eguberrietan gaua potolo-potoloa da, Olentzero ikazkina bezala. Eguna, berriz, txiki-txikia eta zurixka, jaioberrí bat bezala.”

Denok dakigu, Gabon gauaz Olentzero gure etxeetara etortzen dela, eskatu dizkiogun desioak uztera.

Baina, non bizi da Olentzero?

Batzuek diote uzturretik jaisten dela; beste batzuek, Mungian duela etxea. Mirandaolan ere ikusi omen dute...

Ez al da izango, Marik bezala, bizileku asko dituela?

Txoritxo batek esan digu Tolosako Elosegiko basoa leku magikoa dela eta Olentzerok ere izan duela horren berri. Hainbat arrasto ikusi omen dituzte han eta hemen. Badirudi zerbait kontatu nahi digula!

Hartu kriseilua eta goazen Olentzeroren Basoan barrena murgiltzera.

Ah, ez ahaztu berarentzako prestatu duzun eskutitza ekartzen, bere bordako mahaí gáinean uzteko aukera izango duzu.

Hori bai, idatziozu zein diren gabonetarako eta urteberrirako zure nahiak eta desioak.

Zatoz Olentzeroren Basora!

